

Sinodo-seneko Elizaren alde:  
elkartasuna, partaidetza, misioa

### **Sinodo-deialdia Elizarentzat**

Elizak, Jainkoaren Herriak, Sinodoan biltzeko deia jaso du. Gizartean agertzen zaizkigun aldaketa eta erronka handiak, gizartearen arazo larriak, askoren sufrimendua, askotariko izaera eta egoeratako lagunek jasaten dituzten bidegabekeriak..., ikusita, Elizak ezinbestekoa du mundu honetan birkokatzea, Jesukristo bere sortzailearenganako leialtasunari eutsi eta agindu dion misioa hobeto betetzeko.

Testuinguru honetan, Aita Santuak sinodo-sena proposatzen du Elizak bere historiako hirugarren milurteko honetan egin beharreko bidetzat. Gai erabakigarria da Elizaren bizitza eta misiorako.

### **Zer da sinodo-sena?**

“Sinodoa” hitza, aspaldikoa da eta oso gustukoa Elizaren tradizioan. Jainkoaren Herriak bat eginik burutzen duen ibilbidea adierazten du. Honen arabera, “sinodoa” hitza ez dagokio Elizaren jarduera jakin bati, berau oso garrantzitsua bada ere. Are gehiago, “sinodoa” hitzak Eliza definitu eta identifikatu egiten du. Eliza, “sinodo” da, historian bat eginik dabilen Jainkoaren Herria baita. Jarduera edo biltzar jakin batzuk (esate baterako Kontzilioa edo Gotzainen Sinodoa), Elizak sinodo bezala egiten duen erromesaldiko une berezi eta biziak izango dira. Baina Elizaren sinodo-nortasuna ez da horietan agortzen.

Hau dela-eta, historian zehar, Elizaren ibilbidea “sinodo-senekoa” da, hau da, elkarrekin egiten dihardugun bidea da eta bide horretan elkarrekin hausnartzen dugu eta elkarrengandik ikasten, beti ere Espiritu Santuak gidaturik. Elizako kide guztiok Jainkoaren Hitzak argiturik eta otoitzean bat eginik egiten dugu aurrera, Jainkoaren borondateaz jabetzen saiatuz eta Berak deitzen gaituen bideetatik ibiliz.

### **Sinodo-senez bizitzea, prozesu espirituala da**

Eliza ez da ohiko demokrazia. Ez da gure borondateatik sortzen, Jainkoaren borondateatik baizik. Horregatik, Elizaren sinodo-sena prozesu espirituala da, ez eztabaida eta lehien ondorioz sortzen den prozesua. Bidea elkarrekin, Jainkoaren Herriko kide bezala, egitea, dohain eta eginkizunaren emaitza da.

Dohainarena: Eliza Jainkoaren ekimenetik sortzen delako eta Bera delako Elizaren barruko bizia. Historian gertatzen den Jainkoaren maitasunaren zabalkundetik sortzen da Eliza. Horregatik, Eliza elkartasun-misterioa da, grazia huts den Jainkoak

bere barru-barruko muinean txertatzen gaituelako, hau da, Aitaren, Semearen eta Espirituaren arteko harremanen ezaugarri den elkartasunaren bihotzean.

Eginkizunarena: Jainkoak gurekin elkartasunez jokatu duelako, guri bere maitasunari erantzuteko bidea irekiz; hau da, elkartasuna Berarekin, elkartasuna fedean anai-arreba ditugunekin, elkartasuna bizitzako bidean bidelagun dugun gizadi osoarekin.

Horrexegatik, otoitza funtsezko osagaia da sinodo-sena bizi ahal izateko. Otoitzean entzun dezakegu Espirituaren ahotsa, bertan entzuten baitugu Jainkoaren Hitza, eta elkar entzuteko aukera ere ematen digu eta bide batetik nahiz bestetik Jainkoaren borondatea ezagut dezakegu.

### **Elkartasuna, partaidetza, misioa**

Nazioarteko Batzorde Teologikoak dioenez (2018), sinodo-senak, Elizak bere elkartasun-izaera bidelagun izatean, batzarrean biltzean eta kide guztiek misio ebanjelizatzailean parte hartzean zehatz-mehatz agertzen eta zehazten duen Jainkoaren Herri bezala bizitzeko eta jarduteko duen berariazko era adierazten du. Osagai guzti hauek lotuta agertzen dira 2023ko urrian ospatuko den Gotzainen Sinodoko goiburuan eta haren prestaketarako esaldian: “Sinodo-seneko Elizaren alde: elkartasuna, partaidetza eta misioa”. Elizaren bizitzako une honetan, bere bizitza eta misioan esku-hartzera bultzatuko gaituen elkartasunezko esperientzia bizitzera deituak gara. Eta guzti hori bataioan, “Espiritu Santuaren igurtzia hartu duten «fededunek osotasunean harturik, ezin huts egin dezakete fedean” (LG 12). Jainkoaren Hitza eta apostoluen irakaspenak entzutean, senide elkartasunean, ogia zatitzean eta otoitzean “eta honela, artzainek eta fededunek estu hartzen dute elkar, helarazitako fedea gorde, praktikatu eta aitortzeko zereginean” (DV 10).

### **Funtsezko galderak**

Sinodoaren eta beronen prestaketa-aldiaren helburua ez da agiri berriak egitea. Bizipenari lotutako zerbait da: fededunei amore eman bidean den Eliza bezala bizi daitezen. Eta honetan zehazten da: “ametsak ernearazi, iragarpen eta ikuskariak sorrarazi, itxaropenak lorarazi, konfiantza suspertu, zauriak lotu, hartu-emanak eragin, itxaropenezko goiztiria piztu, elkarrengandik ikasi eta buruak argitu, bihotzak sutu eta eskuak indartu egingo dituen iruditeria positiboa sortu” (PA 32).

Hori dela-eta, bi galdera nagusi egiten zaizkigu:

Ebanjelioak iragartzen duten sinodo-seneko Elizan, denak “elkarrekin doaz”: nola gauzatzen da gaur “elkarrekin joate” hori lekuko Elizan? Zein urrats ematera bultzatzen gaitu Espirituak “elkarrekin joate” hori susper dezagun? (PA 26)

Gainerako galderak funtsezko bi hauetan sakontzeko baliagarri izango dira. “Bizi izandako sinodo-senaren” hainbat alderdi nabarmenduko dute. Baina solasaldi edo elkarrizketa ez da haietara mugatuko.

### **Gotzainen Sinodoaren aldiak (2023)**

Aita Santuaren nahia izan da, 2023ko urrian Gotzainen Sinodoa ospatu aurretik lekuko Elizei entzutea. Honako aldi honi 2021eko urriaren 9 eta 10ean eman zitzaion hasiera Erroman. Munduko gainerako Elizbarrutietan, 2021.eko urriaren 17an izan zen hasiera.

Gasteizko Elizbarrutian, elizbarrutiko aldi hau 2022.eko maiatzaren 14ra arte luzatuko da. Egun horretan, Sinodo aurreko Elizbarrutiko Batzar nagusia ospatuko da. Baina, sinodo-prozesu honetan parte har dezaten taldeen bilerak 2022.eko apirilaren 9an amaituko dira, hain zuzen be, Garizuma aldiaren amaierarekin bat.

Elizbarrutien ekarpenen laburpena, gure kasuan, Espainiako Gotzainen Batzarrera iritsiko da eta honek beste laburpen bat prestatu beharko du ekarpen guztiak jasoz.

Gotzainen Batzarrek prestatutako laburpenetan oinarrituta osatuko da *Instrumentum Laboris* deitutakoaren lehen edizioa eta Gotzainen Sinodorako Idazkaritza Nagusiak argitaratuko du.

Agiri hau, Gotzainen zazpi bilera kontinentaletan aztertuko dute. Batzar hauen ekarpenak izango dira *Instrumentum Laboris* deitutakoaren bigarren edizioa egiteko oinarri eta agiri hau erabiliko dute 2023ko urrian ospatuko den Gotzainen Sinodoaren Batzar Nagusian.

2023ko urrian Sinodoaren Batzar Nagusia ospatu ondoren, ezarpen-aldia etorriko da, lekuko Eliza guztiei dagokiena. Elizan elkartasuna, partaidetza eta misioa bizitzeko estilo berria sustatzea izango da aldi honen xedea.



Sinodo-seneko Eleizaren alde

alkartasuna | partaidetza | misioa

## Oharrak

- Entzutea xedetzat duen elizbarrutiko aldi hau, aukera ona da Elizbarrutian eta parroketan fededunek sinodo-bidea elkarrekin esperimendu eta bizi dezaten, horrela beren lekuko egoera eta testuingurura hobeto egokitzen diren bideak garatu ahal izateko. Horretarako dei egiten da zazpi-hamar legunez osatutako **sinodo-taldeetan** biltzeko. Talde horietan jasoko ditugu sinodo-senez ibiltzera, elkar entzutera, banaka nahiz taldean iruzkinak, ideiak, oharrak, jarrerak adieraztera bultzatuko gaituzten sustagarriak. Taldekideei dagokienez aniztasuna izatea komeni da Elizaren sinodo-sena hobeto erakusteko, Herri bakarrean uztartzen baitu, misiora begira, karisma, dohain, ministerio, sentsibilitateen... aniztasuna. Horregatik, sinodo-taldeak parroketan eratzea komeni da.
- Halaber, garrantzitsua da parrokia nahiz Elizbarruti mailan **ezarrita dauden partaidetza-organoei** prozesu honetan dagokien eginkizun berezia nabarmentzea. Parroketako Pastoral Batzordeetan, Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluan eta Abade Kontseiluan, "sinodo-seneko" organo izanik, nahitaez bizi izango da esperientzia hau eta Sinodo aurreko aldi honetarako proposatutako entzute eta bereizketa gauzatuko dira.
- Bileretan, errespetua, entzutea eta **bereizketa espirituala** nagusituko dira. Bileran bizi eta sustatuko da sinodo-seneko esperientzia. Kontua ez da galderei erantzun akademikoa ematea edo eztabaida eta liskarretan nahastea... Sinodoak Elizaren bizitzan eta misioan parte hartzera bultzatuko gaituen esperientzia berria (elkartasuna) bizitzera deitzen gaitu. Horregatik, prozesu osoa otoitzaren ikuspuntutik biziko da. Sinodoko otoitza bilera guztien hasieran egingo da.
- Bilera bakoitzean, gai baten inguruko galderak egingo dira. Ez dira banan-banan erantzun behar; **partaide bakoitzak orokorrean erantzungo du**, deigarrien gertatu zaiona, gehien gustatu zaiona, positiboan edo negatiboan zirrara gehien eragin diona,... batera jarritz.
- **Azken laburpenak**, gainera, bileran izan den giroa islatuko du, agertu diren gauza positiboak edo, egonez gero, negatiboak. Partaideek sinodo-senaren inguruan zerbait ikasi duten esateko aukera ere izango dute. Bilduta zirela, jainkoaren presentzia nola antzeman duten ere azalduko dute. Eta bilera bakoitzaren laburpenean, azken galderaren erantzuna agertuko da: zein hiru urrats ematera bultzatzen gaitu Espirituak elkarrekin joate horretan aurrera egiteko?
- Ahal den neurrian, taldeak **kontuan hartuko ditu "aldeak"**, hau da, sinestedunak diren, baina, hainbat arrazoiengatik, elizara joaten ez diren pertsonak edo, besterik gabe, beren burua fedegabetzat aitortzen dutenak. Desberdin jokatu da batzuekin eta besteekin: elizara joaten ez dena, taldeko kide izan daiteke; oster, hori zailagoa izango da fedegabearentzat, baina beti dago ekarpenen bat eskatzeko aukera... Sinodo-taldeko kideen ekimena izango da delako pertsona horiekin hartu-emanen jartzea. Beharbada guztiek ezingo dute egin, baina baliteke batzuek gerturatze

horretarako erraztasun gehiago izatea. “Bazterretako” pertsona horien ekarpenak sinodo-taldeko elkarrizketara eroan eta errespetuz kontuan hartuko dira...

- Lehia eta eztabaidarako talde ez izatean, batzar bakoitzaren azken laburpena **adostasunaren** emaitza izango da

Gehiago jakiteko: [www.diocesisvitoria.org/sinodo](http://www.diocesisvitoria.org/sinodo)